



FISIKA ETA KIMIKA DBH 2 .

2. Ebaluazioa

3.gai: Materia eta haren egitura
2020/12/9

Izen-abizenak:

1. Osatu hurrengo taula: (1,5 puntu)

Atomoa	Zenbaki atomikoa (Z)	Masa-zenbakia (A)	Protoi kopurua	Elektroi kopurua	Neutroi kopurua
$^{52}_{24}\text{Cr}$					
$^{119}_{50}\text{Sn}$					

2. Farmazia-laborategi batean 50 g sodio bikarbonato disolbatu ditugu alkoholean, harik eta 800 mL disoluzio lortu arte. Zein da egindako disoluzioren kontzentrazioa g/L-tan? eta mg/hl-tan? Adierazi zein substantzia den solutua eta zein disolbatzailea. (1,5 puntu)

3. Gatz disoluzio batean, Amaiak, uretatik gatz banandu nahi du. Ondoren adierazten diren prozeduretatik, zein da egokiena? (0,5 puntu)

- a) Iragaz paperetik pasatu eta gatz paperean geratzen da.
- b) Disoluzioa berotu ondoren, ura lurrundu egiten da eta gatz ontzian geratzen da.
- c) Ez dago gatz banatzeko modurik.

4. Sailkatu sistema material bakoitza beheko kategorietako batean: **merengea, sodioa (Na), ur destilatua, entsalada, ardoa, granitoa, urrezko lingotea (Au), odola, itsasoko ura, airea, esnea, txokolatea arbendolekin, brontzea, altzairua.** (1,5 puntu)

Koloidea	
Nahaste heterogeneoa	
Substantzia bakuna	
Disoluzioa	
Konposatu kimikoa	

5.- Lotu itzazu hurrengo kontzeptuak (1,5 puntu):

a) Lurrunketa eta kristalizazioa	Dentsitate desberdina duten bi likido nahasezin bereizteko erabiltzen da.	
b) Dekantazioa	Oso tenperatura desberdinetan irakiten duten bi likido bereizteko.	
c) Baheketa	Likido eta solido disolbaezin baten osagaiak bereizteko.	Nahaste homogeneoa
d) Destilazioa	Nahasteko osagaietako bat material ferromagnetikoa bada erabiltzen da.	
e) Bereizketa magnetikoa	Likido batetik solido disolbagarri bat bereizteko	Nahaste heterogeneoa
f) Iragazpena	Nahaste solidoak bereizteko erabiltzen da.	

6. Nahaste bat daukazu ondorengo osagaiekin: gatzak, harea, burdinezko txirbilak, alkohola, indabak. Azaldu pausuz pausu nola banatuko zenituzkeen nahasteko osagai bakoitza. (1,5 puntu)

7. Adierazi ondorengo esaldiak egia edo gezurra diren eta **gezurra** direneko kasuetan, **arrazoitu erantzun okerra**: (1,5 puntu)

- a) Nahaste homogeneoetan osagaiak begi hutsez bereiz daitezke.
- b) Brontzea egoera solidoan dagoen disoluzioa da.
- c) Disoluzioko substantziarik ugariena solutua da.
- d) Nahaste heterogeneo baten osagaiak iragazketa bidez bereiz daitezke.
- e) Dekantazio inbutua likidoen nahasteak bereizteko erabiltzen da.

8. Sailkatu substantzia hauek molekula edo kristaletan: (0,5 puntu)



